

ALKATE DEKRETUA

Kontuan izanik, Nagore Zabala Luluagak (72557510P NAN zk.), Alurr Euskal Dantza Taldearen izenean (G20693636 IFK zk.), 2026ko martxoaren 12an, “Alurr dantza taldeak 2026 urtean euskal dantza eta kulturaren sustapenerako antolatutako programazioa” proiektua gauzatzeko dirulaguntza eskaera aurkeztu zuela (814 sarrera zk.).

Kontuan izanik, 2026ko martxoaren 12an 2026WDI10004 espedientea ireki dela.

Kontuan izanik, 2026ko martxoaren 13an Kultura eta Gazteria teknikariak egindako 2026-KG-TXOS022 txostena.

Kontuan izanik, 2026ko apirilaren 14an Udal Idazkariak egindako txostena.

Kontuan izanik, 2026ko apirilaren 16an Udal Kontu-Hartzaileak egindako txostena.

Alkaordetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 23.3 artikuluan arautzen denarekin bat, 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.3 artikulua araberak eta 153/2025 Alkate Dekretuetan esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa,

EBAZTEN DU

LEHENA.- Ibarra Alurr Euskal Dantza Taldeari (G2020693636 IFZ zk.) 2026 urtean zehar gauzatu duen “Alurr dantza taldeak 2026 urtean euskal dantza eta kulturaren sustapenerako antolatutako programazioa” izendun proiektuari zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea honako arrazoiengatik:

1. Herrian dagoen euskal dantza talde bakarra da.
2. Euskal kultura-ondare immateriala den euskal dantza bultzatzen duelako, herritarren artean zabaltzen duelako eta haren transmisio eta babeserako lan egiten duelako.
3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzen duelako.
4. Ibarri izen ona eta ospea ematen diolako.
5. Herriko eragile aktiboa delako, euskal dantza herritarren artean zabalduz eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
6. Ibarra haur, nerabe, gazte, eta herritarrei oro har, herrian bertan euskal dantzan murgiltzeko eta jarduteko aukera ematen dielako.

BIGARRENA.- Honako jarduerak jartzea diruz lagungarri gisa:

- Ikasturtean zehar, haur, nerabe, gazte zein helduei dantza eskolak ematea.
- Urtean zehar herriari begira emanaldiak egin elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea.
- Ekintza ezberdinak herrian, beste elkarteekin elkarbanatzea.

- Euskal Herriko dantza talde ezberdinekin kulturartekotasuna lantzea.

HIRUGARRENA.- Ematea 15.000,00 euroko dirulaguntza zuzena Alurr Euskal Dantza Taldeari, bi zatitan ordainduta:

- Lehenengo ordainketa (hitzarmenaren sinadura burutu ondorengo 30 eguneko epean): 12.750,00 € (dirulaguntzaren % 85).
- Bigarrenengo ordainketa: 2.250,00 € (dirulaguntzaren % 15) egindako gastua justifikatzen duen kontua alkate dekretu bidez onartzerakoan.

LAUGARRENA.- Egoztea aipatu diru kopurua 2026ko 1.09.481.00.334.20 2026 (228) Dirulaguntza zuzena Alurr dantza taldea kontu-sailari.

BOSGARRENA.- Ibarra 2026an “Alurr dantza taldeak 2026 urtean euskal dantza eta kulturaren sustapenerako antolatutako programazioa” proiektua gauzatzeko eta diruz laguntzeko, Alurr Euskal Dantza Taldearekin lankidetzat hitzarmena sinatzea.

SEIGARRENA.- Dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesdunari jakinaraziko zaio.

ZORTZIGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Kontu-Hartzaitzari.

BEDERATZIGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Udalbatzak egiten duen hurrengo ohiko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan
ZINEGOTZI AHALORDEDUNA

Nekane Lazkano Prieto



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026WDI10004-Dekretua_OR/Decreto_GE (ALURR EUSKAL DANTZA TALDEA)